


2009 Mendirako agindu nagusiak



Gipuzkoako Automobilismo Federazioa
Federación Guipuzcoana de Automovilismo

2009 MENDIRAKO AGINDU NAGUSIAK

1. Artikulua- DEFINIZIOAK

1.1. Mendiko Lasterketa (Kirol Proba)

Mendiko errepide batean, trafikoa itxita, bi automobil ala gehiagoren artean banaka lehiatuz, zeinetan abiadura faktorerik garrantzitsuena baita, garatzen den proba. Ibilbideak txanda bat ala bi hartu ahal ditu barne ibili beharreko distantziaren arabera.

1.2. Parke Itxia

Guneka eta ibilbideak zeinetan edonolako konponketa eta kanpoko laguntza debekatuta baitago.

1.3. Osagarria

Idatzizko jakinarazpen ofiziala zein Probari dagokion Araudi Bereziaren barne baitago, hau aldatzeko, argitzeko ala osatzeko izanik.

Osagarri guztiak zenbakidunak eta datadunak izango dira.

Nori dagokio osagarriak igortzeko ahalmena:

—Batzorde Antolatzaileari Kirol Komisarioen Elkargoaren Eraketa burutzen den arte. Onarpena F.G.A.-ren mende egongo da.

—Kirol Komisarioen Elkargoari eratzen denetik proba amaitzen den arte.

1.4. Lehiakidea

Pertsona fisikoa ala juridikoa, F.V.A.-k ala bere A.D.N.-ak emandako Lehiakide-baimen baten titularra, zeinek aurtengo urterako balio baitu.

1.5. Gidaria

Edozein lehiaketan automobila gidatzen duen pertsona zeinek nahitaez F.V.A.-k ala bere A.D.N.-ak emandako baimena baitauka, honek aurtengo urterako balioa izanik.

2. Artikulua- MODALITATE NAGUSIAK

2.1. Onartutako ibilgailuak

Mendiko Gipuzkoako Txapelketan onartutako ibilgailuak Txapelketa horri dagokion Araudi nagusiko 3. Artikuluan definitutakoak dira.

2.2. Partaide kopurua

Irteera hartuko duten partaideen gutxieneko kopuru bat ezartzen da, proba ospatu ahal izan dadin.

Antolatzaileek inskripzio kopurua mugatu ahal dute (gutxienez 50), eta kasu horretan Araudi Nagusian adierazi beharko dute.

3. Artikulua- ARAUDI BEREZIA

3.1. Argitalpenerako baldintzak

3.1.1. Araudi Berezia Gipuzkoako Automobilismoa Federazioa argitaratutako ereduarekin doituko da eta ondorengoek adierazitako baldintzekin erabat ados egongo da:

—C.D.I.

—2009ko Gipuzkoako Txapelketa, Kopa eta Sariei dagozkien Agindu Komunak.

—2009 Mendiko Gipuzkoako Txapelketarako Agindu Nagusi hauek.

—2009 Mendiko Gipuzkoako Txapelketaren Araudi Nagusia.

—F.I.A.-ren Buletinean, F.V.A. ala F.G.A.-k argitaratutako beste edonolako araudi ala interpretazio.

3.1.2. Araudi Bereziak Antolatzailearen xedapen eta baldintza osagarri guztiak esplizituki aipatu beharko ditu, zeinek araudiko testuekin ados egon behako baitute.

3.1.3. Gipuzkoako Txapelketarako puntuak lortzeko balio duen Araudi Bereziaren Portadan, hala nola Araudiarentzako Osagarrietan eta emaitza ofizialei dagokien lehenengo orrian, Txapelketaren logotipoa eta F.G.A.-ren logotipo ofiziala azalduko dira.

3.1.4. Gutxienez Proba hasi baino 60 egun lehenago, F.G.A.-ren Idazkaritzara Araudiari dagokion proiektuaren bi ale igoz beharko dira nahitaezko onarpena lortzeko. Proiektua jasotzen denetik gehieneko 15 eguneko epean, F.G.A.-k Antolatzaileari burutu ahal diren aldaketak jakinaraziko dizkio, edo bestela onartu egingo du. Behin-betiko Araudia argitaratua izango da eta bere 2 ale F.G.A.-ren Idazkaritzara igorriko dira, gutxienez Proba hasi baino 30 egun lehenago.

3.1.5. Inskripzioak burutzeko amaierako muga-data, gutxienez, Proba hasi baino 5 egun lehenago izango da.

3.1.6. Irteera-hurrenkera adierazten duen inskribatutako zerrenda, 2008 Gipuzkoako Txapelketa, Kopa eta Sariei dagozkien Agindu Komunetako 8.3 Artikuluan jasotzen denari jarraiki, argitaratu eta F.G.A.-ra igoz beharko da inskripzioak amaitu eta hurrengo egunean.

3.1.7. Araudi Bereziak emaitza Ofizialen argitalpen-tokia eta ordua adierazi behar ditu. Argitalpen hori atzeratu egin beharko balitz, ordu berria oharren Taula Ofizialean argitaratu beharko da.

3.2. Araudi Bereziaren Aldaketak – Osagarriak – Iragarki-Taula.

3.2.1. Araudi Bereziaren xedapenak, C.D.I.-ren 66 eta 141. artikuluetan hitzartutakoari jarraiki soilik aldatu ahal izango dira.

3.2.2. Aldaketa ala xedapen osagarri oro datadun eta zenbakidun osagarrien bidez jakinaraziko da, zein Probaren Araudi Bereziaren barne egongo baitira.

3.2.3. Probaren Araudi Bereziari dagozkion Osagarriak Probaren Idazkaritzan erakutsiko dira, baita oharren Taula Ofizialean ere.

3.2.4. Kirol-Komisarioen Elkargoa eratu aurretik zabalduko osagarri orok, F.G.A.-ren idatzizko onarpena jaso beharko du.

3.2.5. Kirol-Komisarioen Elkargoa eratu ondoren zabalduko osagarri oro, aurretiaz honen onarpena beharko du.

3.2.6. Probaren Idazkaritzan eta Irteera-aurreko Parkean, Organizazioak oharren Taula Ofizial bat instalatuko du.

3.2.7. Partaideak zuzenean informatuko dira, hala dagokion kasuetan. Hala ere, partaideren bat lokalizatu ezin izango balitzake, 2009 Txapelketa, Kopa eta Gipuzkoako Sariei dagozkien Agindu komunetako 5. Art. Adierazitakoa aplikatu ahal izango da.

3.3. Araudiaren aplikazioa eta interpretazioa.

3.3.1. Lasterketa-Zuzendaria probaren garapenean zehar Agindu Nagusiak, Araudi Nagusia eta Araudi Berezia aplikatzeko arduraduna da.

Era berean, Kirol Komisarioei lehenago aipatutako araudian aplikagarria den erabaki garrantzitsu oro jakinarazi beharko diete.

3.3.2. Araudiak aplikatzerakoan Lasterketa-zuzendariaren erabakien aurka doan erreklamazio oro, Kirol-Komisarioei transmitituko zaie aztertu eta erabakia hartzeko (C.D.I.-ren 171. Art. eta hurrengoak).

3.3.3. Araudian aurreikusten ez den kasu oro Kirol-Komisarioek aztertuko dute, zein erabaki bat hartzeko baimendu bakarrak baitira (C.D.I.-ren 141. Art.)

3.3.4. Araudia interpretatzerakoan zalantzaren bat izanez gero, gaztelerazko testuak egiaztatuko du. Lehiaketetarako proba puntuagarrietan F.I.A.-k frantsesez argitaratutako testuan egiaztatuko du.

3.3.5. Lehiakideak pilotuaren ardura bere gain hartzen du.

3.3.6. Pilotuak lehiakidearen ardura bere gain hartzen du azken hau ibilgailuaren barnean ez dagoenean.

3.3.7. Lehiakideak ala pilotuak eginiko desegokia, iruzurrezkoa ala kirol-izpirituaren aurkakoa den ekintza oro, Kirol-Komisarioek epaituko dute, zeinek penalizazio bat inposatu ahal izango baitute, hau KANPORATUA IZATERA iritsi ahal izanik.

4. Artikulu- OFIZIALAK

4.1. C.D.I.-an ezarritakoari jarraiki, Ofizialen taula F.G.A.-k onartu beharko du.

4.2. Ofizialen taula Araudietan konfiguratuko da, hau onartua izan ahal dadin eta Autonomia Erkidego honetan ospatzen diren proba guztiak, Gipuzkoako txapelketetarako puntuak lortzeko balio izan ala ez, gutxienez ondorengoak izan beharko ditu barne:

DC baimena duen Lasterketako Zuzendari bat.

CD baimena duten hiru Kirol Komisario.

OC baimena duen Komisario Teknikarien Buru bat.

OB baimena duen Kronometratzaileen Buru bat.

SC baimena duen Probarako Idazkari bat.

Kirol komisarioen elkargoko lehendakaria, kirol komisarioa eta komisario teknikarien burua EAF-FVA.k izendatuko ditu.

Horiek guztiak indarrean dauden baimenekin zeinen zenbakia eta maila bere izena eta abizenen ondoren azalduko baitira. Araudi Berezian azaltzen diren Probarako Ofizial guztiek, Automobilgintzako Euskal Ofizialen Elkargoari bere adostasuna jakinarazi beharko diote.

- 4.3.** Kronometratzaileek eta Komisario Teknikariek dagozkien baimenak eduki beharko dituzte (OB eta OC) eta Araudi Berezian, Kronometratzaileen talde bat adieraziko da.
- 4.4.** Proba guztietan, nahitaezkoa izango da Mediku Epaile batekin kontaktzea, zein osasun segurtasunaren arduraduna izango baita.

5. Artikulua- INSKRIPZIOAK

5.1. Inskripzio – Inskripzioen eskaera

- 5.1.1.** Mendiko Gipuzkoako Txapelketaren probaren batean parte hartu nahi duen lehiakide orok Organizazioak eskuratutako inskripzio-eskaera bat bidali behar du, behar bezala beteta, Probaren Idazkaritzara inskripzioen amaiera-ordua baino lehen. Idazkaritzako helbide osoa, telefonoa, fax, etab. eta inskripzioei dagokion amaiera-data nahiz – ordua Araudi Nagusian zehaztu beharko dira.
- 5.1.2.** Inskripzioak hauen muga-ordua baino lehen fax bidez burutu ahal izango dira ala gutunaren bidez zeinen zigilu-marka data berekoa izango baita, honekin batera inskripzioari dagokion zenbatekoa joango delarik. Eskakizun hauetakoren bat beteko ez balitz jasotako inskripzio oro baliogabetuko da.
- 5.1.3.** Atzerritarrak diren lehiakideentzat, zein Europar Batasunekoak ez baitira, baimena C.D.I-ren 70. Artikuluan ezarritakoarekin ados egon beharko du.
- 5.1.4.** C.D.I.-ren 74. Artikuluan zehaztutakoari jarraiki, antolatzaile batek inskripzio bat errefusatu ahal izango dute, arrazoiak zehaztera behartuta egon gabe. Kasu honetan interesatua beranduenez Probaren baino bi egun lehenago informatu beharko da.
- 5.1.5.** Araudi Bereziak partaideen kopurua mugatuko balu eta hau gaindituko balitz, onartutako taldeen zerrenda eta hauen harrera-hurrenkera ezarriko da. Gertatu ahal liratekeen bajak estaltzeko erreserbak esleitu ahal izango dira.
- 5.1.6.** Inskripzio-eskaera sinatzeagatik soilik, lehiakidea bere kabuz eta bere gidariaren izenean C.D.I.-k eta bere eranskinek onartutako kirol-jurisdikzioen mendean jartzen da, eta 2008 Mendiko Gipuzkoako Txapelketan aplikagarriak diren araudiak ezagutu eta onartzeko konpromisoa hartzen du.
- 5.1.7.** Inskripzioa amaitutakoan, inskripzio-buletinean ezingo da aldaketarik burutu. Ibilgailua aldatzea Proba hasi baino 24 orde lehenago izango da zilegi, betiere hasieran inskribatutako ibilgailuaren Maila berekoa baldin bada. Ordezko ibilgailuaren zilindrada ez da ordeztutakoarena baino handiagoa izango.

5.1.8. Proba hasi aurretiko Egiaztapen teknikoetan, ibilgailu bat inskribatu zeneko Talde eta/edo Mailaren ezaugarriekin egokituko ez balitz, ibilgailu hau, Komisario Teknikariek proposatuta, Kirol Komisarioen erabakiari jarraiki dagokion Talde eta/edo Mailara transferitu ahal izango da.

5.2. Inskripzioko eskubideak

5.2.1. Maila Handiagoko puntuak lortzeko balio duten Probetan izan ezik, inskripzioko eskubideei dagokien gehieneko bat ezartzen da:

- Antolatzaileak kontratatutako aukerazko publizitatea onartzen bada: **170 €.**
- Antolatzaileak kontratatutako aukerazko publizitatea onartzen EZ bada: **320 €.**

5.2.2. Inskripzio-eskaera ez da onartuko inskripzioko eskubide guztiekin batera ala Lehiakidearen A.D.N-ak igorritako errezibo batekin aurkezten ez bada.

5.3. Inskripzioko eskubideen diru-itzultzea

Inskripzioko eskubideei dagokion erabateko diru-itzultzea burutuko da ondorengo kasuetan:

5.3.1. Eskatzaileei zeinen inskripzioa errefusatua izan baita.

5.3.2. Proba ospatuko ez balitz.
Ondorengoei eskubideen hein bat itzuli ahal izango zaie.

5.3.3. Bere borondatez kanpoko arrazoiren bategatik, zein Erakunde Antolatzaileak onartuko bailuke, irten ezingo luketen eta gutxienez lasterketaren eguna baino bi egun lehenago hori jakinarazi duten lehiakideei.

6. Artikulua- ASEGURUAK

6.1. F.V.A.-K aseguru-poliza bat kontratatuko du, ondorengo arriskuak bermatuz:

6.1.1. Nahitaezko Erantzukizun Zibila, indarrean dauden xedapenetan hitzartutakoari jarraiki.

6.1.2. Proban parte hartzen duten automobilek eraginiko istripu ala suteen erantzukizuna den diru-kopuru haien ordainketa, Erantzukizun Zibileko zenbateko bateraino, Eusko Jaurlaritzako Trafikok onartzen duen zenbatekoagatik.

6.1.3. Istripuaren kasuan, lehiakideak ala bere ordezkariak Kirol-Komisarioari idatziz jakinarazi beharko dio, ala honi ezin izanik Lasterketako Zuzendariari, ahalik eta azkarren eta gehieneko 24 orduko epe batean. Adierazpen horretan istripuaren zirkunstantziak azalduko dira, baita lekukoen izenak eta helbideak ere.

- 6.1.4.** Lehiakideei gogorazten zaie Organizazioak kontratatutako aseguru-polizak antolatzaile eta gidari titularrek eraginiko kalteak soilik babesten dituztela. Gidariak ala automobil partaideek jasan ahal dituzten kalteak kanpoan geratzen dira.
- 6.1.5.** Erantzukizun Zibileko aseguru horretaz gainera, lehiakideek eta gidariak, askatasuna dute kontratatuzko, bere kabuz eta komeni zaienaren arabera, egokitzat jotzen dituzten banakako aseguruak.

7. Artikulua- LEHIAKETAKO ZENBAKIAK

- 7.1.** Organizazioak partaide bakoitzari bi zenbaki emango dizkio, zeinek C.D.I.-ren 206 eta 207. artikuluetan aurreikusten diren baldintzak beteko baitituzte
- 7.1.** Zenbakiak I. Mailako ibilgailuetako aurreko atetan kokatuko dira, eta II. Mailari dagokionean ibilgailuetako pilotuaren auto-barnearen altueran.
- 7.2.** Zenbakiak une orotan bere forma , neurria eta osaketa mantendu beharko dute. Ezin dira murriztu.
- 7.3.** Lehiaketako zenbakietako bat falta izateak eskudirutan ordaindu beharreko penalizazio bat izango du barne.
- 7.4.** Lehiaketako bi zenbakiak falta izateak probatik kanporatzea barne izango du.

8. Artikulua- PUBLIZITATEA

- 8.1.** 2009 Gipuzkoako Txapelketa, Kopa eta Sarietako Agindu Komunei dagokien 7. Artikuluan zehaztutakoa nahitaez bete beharko da.

9. Artikulua- ERREGAIA

- 9.1.** Erabilitako erregaia C.D.I.-ren "J" eranskinean adierazitako araudiarekin ados egongo da. Desadostasunak KANPORATZEA izango du barne.

10. Artikulua- PNEUMATIKOAK

- 10.1.** Erabili beharreko pneumatikoen kopurua eta mota libreak dira.
- 10.1.** Marka bakarreko Kopetan erabili beharreko pneumatikoen kopurua hauei dagozkien Araudi Berezien agindupean legoke.

10.2. Pneumatiko-berogarriak baimenduta daude.

11. Artikulua- PROBETAKO EGIAZTAPENA

11.1. Araudi Berezietan lehiakideei eta bere gidariei jakinaraziko zaie ibilbideko egiaztapenak, zein entrenamendu ofizialetatik kanpo egiten baitira, eskusiboki ibilgailuaren bidaiariei dagokien erantzukizuna direla, eta, inola ere, ezin dela bere jarduera Probaren Organizazioarekin ala Federazioarekin lotu.

12. Artikulua- HURRENKERA-ZENBAKIA ETA IRTEERA-HURRENKERA

12.1. Partaide bakoitzari esleitutako zenbakia ikusgarri azaldu beharko da ibilgailuaren albo banatan (ikusi 7.2. Art.).

12.1. Zenbakiak irteerari dagokion hurrenkera bera alderantzikatuta esleituko dira. Irtengo den azkeneko zenbakia zenbakirik baxuena izango da.

12.2. Entrenamendutan eta lasterketan beti irteera-hurrenkera berdina ezarriko da zein Mailen arabera burutuko baita eta Maila bakoitzaren barnean zilindrada txikienetik zilindrada handienera.

Mailetarako hurrenkera ondorengoak izango da:

- 1. Maila, 2. Maila, 7. Maila, 3. Maila, 4. Maila, 5. Maila, 6. Maila, 7. Maila.

Irteerak adierazteko gutxieneko denbora-epea, bai entrenamendutan eta bai lasterketan, 30 segundokoa izango da.

13. Artikulua- ADMINISTRAZIO KONTROLA

13.1. Partaideak pertsonalki bertaratu beharko dira administrazio kontrolean, Probaren Programan aurreikusitako orduan.

13.1. Ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- Lehiakidearen baimena.
- Gidariaren baimena.
- Hala badagokio, Pasaporte Teknikoa.
- Jarraipeneko Fitxa Teknikoa.

13.2. Administrazio Kontrolera Probaren Programan aurreikusitako epeetatik kanpo aurkezten diren partaideek, 60 €-ko eskudirutan ordaindu beharreko isun bat jasoko dute, 15 minutuko epe ala 15 minutuko frakzio bakoitzeko. Atzerapenak 60 minutuak gainditzen dituzenean, irteera ukatu egin ahal izango da.

14. Artikulua- AURRETIAZKO EGIAPTAPEN TEKNIKOAK

- 14.1.** Ibilgailuak identifikatzeko eta segurtasun neurriak kontrolatzeko, partaideek nahitaez bere ibilgailua Probaren Programan aurreikusitako orduan egiaztapen teknikora aurkeztu beharko dute.
- 14.2.** Ibilgailuaren Homologazio-Fitxa nahitaez aurkeztu beharko da, aurkako kasuan, Kirol Komisarioen irizpidea penalizatu egingo da.
- 14.3.** Partaideek nahitaez kaskoa, Hans eta jantzi ignifugo osoa (lohihartzekoa, eskularruak, sotokaskoa, mahuka luzeko kamiseta, barne-arropa luzea, galtzetinak eta botinak) aurkeztu beharko du hauek egiaztatzeko.

Segurtasun neurri hauen betetzea probaren edozein unetan egiaztatu ahal izango dira eta bere arau-hausteak barne izango du proban ez irtetea ala honetatik kanporatzea.

Aurretiazko egiaztapen teknikoak egiaztapen administratibotatik aparte egin ahal dira.

- 14.4.** Irteera debekatu egingo zaie egiaztapen teknikoetara Probaren Programan aurreikusitako ordutik kanpo aurkezten diren partaideei. Komisarioen Elkargoak, salbuespen bezala, partaideren bati hauek beste ordu batzuetan egiteko baimena emango dio. Kasu horretan baimendutako partaidea penalizatua izango da ondorengo baremoari jarraiki:
- 1. aldiz Txapelketan 30 €.
 - 2. aldiz Txapelketan 90 €.
 - 3. aldiz Txapelketan Ez dauka baimenik egiaztapena burutzeko.
- 14.5.** Egiaztapen teknikoak burutu ondoren eta ibilgailuren bat araudi tekniko eta/edo segurtasun araudiarekin ados ez balego, Kirol Komisarioen aldetik, denbora-epe bat eman ahal izango zaio, ibilgailu horri dagokion adostasuna lortzeko.
- 14.6.** Irteera debekatu egingo zaio ados ez dagoen ibilgailu orori.
- 14.6.** Xasisa eta motor blokea une orotan markaketa berezirako objektu izan ahal izango dira.
- 14.8.** Probaren edozein unetan egiaztapen osagarriak burutu ahal izango dira. Proba osoa zehar lehiakidea ibilgailuari dagokion egoera teknikoaren arduraduna da, KANPORATUA IZATEKO zigorraren arriskuarekin.
- 14.9.** Lehiakidearen erantzukizuna da mantentzea Probaren amaiera arte, ibilgailuan jarritako edonolako identifikazio-marka ala zigilu. Hauek faltatzeak lasterketatik kanporatzea izango du barne.
- 14.10** Frogatutako iruzur oro, eta batez ere ukitutako markak ukitu gabeak bezala aurkezteak, taldea lasterketatik kanporatzea izango du barne, baita arau-haustea ezkutatu ala gauzatzea erraztuko zukeen edozein lehiakideena ere, hori guztia F.V.A.-ren aurrean eskatu ahal liratekeen zigor larriagoetarako kalterik gabe.

- 14.11** Egiatzapen teknikoak ez du indarrean dauden araudiei dagokionean adostasun-argiketa bat eratzen.
- 14.12** Egiatzapenak amaitzean, Organizazioak entrenatzeko onartuak diren ibilgailuen zerrenda oharren Taula ofizialean argitaratu eta jarriko ditu.

15. Artikulua- IRTEERA-PROZEDURA

- 15.1.** Partaide guztiak proba bakoitzean Irteera-aurreko Parkean aurkeztu beharko dira irteera baino ordubete lehenago, une horretatik aurrera, Lasterketako Zuzendariaren esanetara egongo delarik. Arau hau ez betetzea 90 €-rekin zigortuko da.
- 15.2.** Ibilgailuak irteerarako ilaran jarriko dira, gutxienez, hamar minutu lehenago txanda bakoitzari dagokion bere irteera-orduari dagokionean. Bere ordurako aurkezten ez den pilotua, probatik KANPO geratuko da.
- 15.3.** Irteera banaka emango da eta pilotua auto-barnean, ibilgailua geratuta eta motorra martxan delarik soilik emango da. Ibilgailuak modu batean kokatuko dira ezen bere atalik aurreratuen zelula fotoelektrikoaren gainaldetik justu metro batera egongo baita.
- 15.4.** Irteera-prozedura ondorengoia izango da:
- Irteera-lerroan eta ibilgailu partaidearen aldamenean esleitutako Ofiziala egongo da, zeinek pilotuari adieraziko baitio:
 - 30"
 - 15"
 - 10"
 - Ondoren Ofizialak gidariaren arreta eskatuko du semaforora begiratu dezan, zeinean une horretan itzalita egongo baita. Ondorengo prozeduraren arabera:
 - Semaforo gorria = 5 seg. irteerarako (piztuta dago).
 - Semaforo berdea = IRTEERA (semaforo berdea eragitean automatikoki gorria itzali egingo da).
- 15.5.** Semaforo berdetik abiatuta irteerari ekiteko 15" falta dira. Egiten ez bada, txandatik kanporatuta geratuko da.
- 15.6.** Argi anbar keinukariak irteera-prozesua ezeztatu egiten du. Beraz, argi honen agintea Lasterketako Zuzendariaren ardurapean egotea gomendatzen da.
- 15.7.** Semafororik erabilgarri izaten ez bada, irteera eskuz adieraziko da, pilotuari azkeneko bost segundoak eskuko hatzen bidez adierazita.
- 15.8.** Zelula fotoelektrikorik eskuragarri izango ez balitz, kronometrajea eskuz burutuko da. Ofizial arduradunaren irteera-seinalea kronometrajearen abioarekin bat etorriko da, beraz ibilgailua atzerapenik gabe abiatu beharko da.

- 15.9.** Ibilgailu bakoitza bere Talde eta Mailaren barnean abiatuko da.(12.3. Art.).
- 15.10** Lasterketako Zuzendariak, Kirol Komisarioen aurretiazko onarpenarekin, zirkunstantzien arabera irteera-hurrenkera aldatzeko ahalmena dauka.

16. Artikulua- IRISTE-PROZEDURA

- 16.1.** Bandera, laukizko panel ala normalizatutako pankartaz gainera, errepidearen gainean margotutako lerro zuri bat egon beharko da.
- 16.2.** Irteera ateratako ibilgailuari erregistratuko zaio. Txanda helmugako lerroa gainditzen denean amaitzen da. Abiadura berehala nabarmen murriztu behar da.
- 16.3.** Erabat debekatuta dago geratzea, gutxienez helmuga-lerroaren ondorengo 200 metroraino, zeinetan komisarioen instrukzioak jarraituko baitira. Artikulu hau ez betetzeak eskusioa izango du barne.
- 16.4.** Kronometrajea, segundo-ehunetan burutua, ahal bada, zelula fotoelektrikoen bidez eta inprimagailu bat eraginez burutuko da. Sistemak irteera-zelula bat eta iristeari dagokion beste bat izango ditu barne eta eskuz tolestuko da.

17. Artikulua- IBILBIDEA

Ondorengo xehetasunak nahitaez beteko dira:

- 17.1.** Gutxienerako luzera: 2 Km.
- 17.2.** Batez besteko gutxienerako aldapa: 5%
- 17.3.** Desoreka: S/LL 350 m.
- 17.3.** Partaideak ibili beharreko gutxienerako distantzia osoa: 3 Km
- 17.4.** Pneumatiko-pilak ala lastozko balak eskuragarri izatea gomendatzen da, zein asfaltatu gabeko ertzetan eta lasterketatik hurbil dauden oztopo arriskutsuen aurrean jarriko baitira, ibilgailuen pasabidea ekidin eta talkaren kasuan partaideak babesteko, hurrenez hurren.
- 17.6.** Segurtasun Zerbitzuak: 2009 Mendiko Gipuzkoako Txapelketaren araudiari jarraiki.
- 17.7.** 6. Mailako ibilgailuak pasa aurretik, ibilbidea garbitzeari ekingo zaio,lehiaketa behar adina denboran geratuz, Lasterketako Zuzendariaren irizpideari jarraiki.
- 17.8.** Antolatzaileei ibilbidea murriztea gomendatzen zaie, beharrezkoa balitz, era ezarritako gutxienerako mugaraino, zoruaren egoeratik hala komeni izango balitzake.

18. Artikulua.- ENTRENAMENDUAK

- 18.1.** Gutxienez, entrenamendu ofizialetarako txanda bat ezarri beharko da.
- 18.2.** Gidariak, gutxienez, antolatzaileak programatutako entrenamenduei dagozkien igoera ofizialetako bat burutu beharko dute. Ez ohiko zirkunstantziak direla eta, gidari batek entrenamenduko igoeretako bat behintzat osatu ahal izango ez balu, Lasterketako Zuzendariak, Kirol Komisarioen aurretiazko onarpenarekin, taldeak lasterketan parte hartzea lortu ahal izango du.
- 18.3.** Erabat debekatuta dago entrenamendu ofizialetarako destinatutako orduetatik kanpo entrenatzea. Kirol Komisarioek arau hau hausten duen orori zigorra ezarriko diote, F.V.A.-k ezarri ahal lituzkeen beste hainbat zigorrentzako kalterik gabe. Probetako azterketak soilik baimentzen dira (Art. 11).
- 18.4.** Entrenamendu ofizialak Probaren Ordutegi Programaren arabera garatuko dira.
- 18.5.** Debekatuta dago seinale, fabrikako seinale, zoru, eta abarren gainean pintatzea. Arau hau hausten duen taldeak ez du irteerari ekiteko baimenik izango.

19. Artikulua.- LASTERKETA

- 19.1.** Lasterketa probari dagokion Ordutegi Programaren arabera burutuko da.
- 19.2.** Lasterketako Zuzendariak, Kirol Komisarioen erabakiari jarraiki, geratutako pilotuei, beraiekin zerikusirik ez duen gertaera baten ondoren, txandari dagokion irteerari berriro ekiteko baimena eman ahal izango dio. Kasu honetan ez da inolako erreklamaziorik onartuko.

20. Artikulua.- SEINALEZTAPENA

- 20.1.** Bai errepidean eta bai entrenamendutan, partaideek seinale-egile ofizialek banderekin eginiko adierazpenak zorrozki jarraitu beharko dituzte zeinen esanahiak C.D.I.-ren "H" Eranskinaren 4. Artikuluan zehazten baitira, eta kirolzaleek ezagutu beharko baitituzte.

21. Artikulua.- PISTAKO PORTAERA

- 21.1. Bidea ematea:** harrapatzen den ibilgailu oro pasatakoa bezala kontsideratuko da eta horregatik bidea libre utzi beharko du, atzerapenik gabe martxa urrituz.

- 21.2. Ibilbidean geratzea:** gidari batek bere txanda arazo mekanikoak nahiz beste edonolakoak direla eta eten beharko balu, bere ibilgailua berehala pistatik kanpo aparkatuko du eta beste partaideentzat inolako arriskurik suposatu gabe. Komisarioek hala aginduta nahitaez utzi eta obedituko du. Berritro martxan jartzeko pistako komisarioen baimenarekin kontaktu beharko du, zeinek Lasterketako Zuzendariari eskatuko baitiote.
- 21.3. Aurkako noranzkoko zirkulazioa:** erabat debekatuta dago ibilgailu partaide batentzako lasterketari dagokion noranzkoaren aurka zirkulatzea, Lasterketako zuzendariak espresuki hala aginduko balu izan ezik. Kasu honetan ere, behar bezala identifikatutako organizazioaren ibilgailu bat bere aurretik izango du. Xedapen hau hausten duen orok KANPORATUA IZATEKO arriskua izango du barne, beste hainbat zigor aplikatzeko eta F.G.A.-ri kasua jakinarazteko eskubidea izanik.
- 21.4.** Ibilbidean geratutako ibilgailuak ez dira atoian eramango Lasterketako Zuzendariak espresuki agindutako kasuetan izan ezik.

22. Artikulua.- DENBORA-TAULA

Puntuak lortzeko balio duten probetan Artikulu hau aplikatzea gomendatzen da.

- 22.1.** Helmugatik gutxienez 200 metrora taula bat instalatuko da zeinetan partaideen behin-behineko denbora ofizialak idatziko baitira. Taula hau altuera adierazgarri batean jarriko da eta gutxienez 2x1 metroko neurria izan behar du.
- 22.2.** Jaitsierako karabana lerrotatzen den tokiaren aldamenean instalatu beharko da eta partaideentzako erraza gertatzen den sarbidea izango du.
- 22.3.** Antolatzaileak taularen barne dauden lotune eta datuak fidagarriak, azkarrak eta eraginkorrak izateko neurri egokiak hartuko ditu.

23. Artikulua.- SEGURTASUNEO ETA INTERBENTZIOKO IBILGAILUAK

- 23.1.** Antolatzaileak, gutxienez, "0"-rekin zenbatutako segurtasun ibilgailu bat aurreikusi beharko du. Ibilgailu honek txanda guztiak, entrenamenduak eta lasterketa burutu beharko ditu, gutxienez, lehenengo partaideari dagokionean 3 minutu lehenago irtengo delarik. Helmugara iristen denean Lasterketaren Zuzendariari ibilbidearen egoera globala jakinaraziko dio.
- 23.2.** Antolatzaileek interbentzio azkarreko ibilgailu bat eskuragarri izan behar dute, "R" deiturikoa, proban zehar edozein istripu gertatuta ere parte hartzeko prestatuta egonik, Lasterketako Zuzendariaren esanetara.

- 23.3.** Ibilgailu hauek gutxieneko hornidura batekin kontatu beharko dute, su-itxalgailu, lehen sorospenetarako botikina eta istripuaren kasuan gidaria ibilgailutik ateratzeko behar adina tresneriarekin.
- 23.4.** "R" ibilgailuak identifikazio, seinaleztapen optiko eta larrialdiko akustikoarekin hornituta egon beharko dira.
- 23.5.** Pistan segurtasun ibilgailu batek burutu ahal duen behin-behineko presentzia seinale-egileen aldetik bandera zuriarekin aurretiaz jakinaraziko da. Bere aurrean ibilgailu horietako bat aurkitzen dituen partaide orok, laguntza zerbitzuan, nahitaez bere atzean neutralizatuta egon beharko du, baita erabat geratuta ere. Lasterketako Zuzendariak, Kirol Komisarioen aurretiazko onarpenarekin, egoera horretan aurkitu diren gidariei, zeinek iriste-denbora ez baitute egiaztatuko, igoera berri bat baimendu ahal izango diete, lasterketako ordutegiak ala errepedea irekitzeak ekiditen badute izan ezik. Honi dagokionean ez da inolako erreklamaziorik onartuko.

24. Artikulua.- PARKEAK

24.1. Egiaztapen parkea

- 24.1.1.** Parke hau behar bezala hesituta egon beharko du eta bere sarbidea zainduta publikoa sartzea ekiditeko. Sarbidea eta bertan egotea dagokien ofizialei soilik baimenduko zaie eta taldeei dagokien ordutegiak hala agintzen duenean.
- 24.1.2.** Ibilgailuen egiaztapena burutzeko karpa, toldoa ala gune estaliarekin hornituta egon beharko da. Era berean Komisario Teknikariek burutu beharreko lanerako beharrezko materialarekin hornituko da.
- 24.1.3.** Sarrera-ordutegia ofizial kronometratoraile batek kontrolatuko du, zeinek ibilgailu partaide guztien sarrera-ordua idatziz erregistratuko baitu.

24.2. Irteera-aurreko Parkea

- 24.2.1.** Irteera-aurreko Parkea lanekoa kontsideratuko da.
- 24.2.2.** Parke hau behar bezala hesitua egotea eta bere sarbidea publikoaren sarrera ekiditeko zainduta egotea gomendatzen da. Sarbidea eta bertan egotea dagokien ofizialei soilik baimenduko zaie eta behar bezala egiaztatutako talde guztietako kideei.
- 24.2.3.** Ibilgailu partaide bakoitzeko laguntza-ibilgailu baten sarbidea baimenduko da.
- 24.2.4.** Ibilgailu partaide bakoitzeko gehienez 4 pertsona baimenduko dira.
- 24.2.5.** Bere kokapena irteera-lerrotik ahalik eta hurbilen egon beharko du, behar bezala seinaleztatuta eta mugatuta egon behar izanik.

24.2.6. Proba haietan zeinetan Laneko Parkea eta irteera-lerroaren arteko distantziak hala gomendatzen baitun, antolatzaileak ibilgailu partaideentzako laguntza-sistema bat aurreikusi beharko du.

24.2.7. Erabat debekatuta geratzen dira edonolako azelerazio-, balaztatze-maniobrak etab. Laneko Parkearen esparruan.

24.3. Parke itxia

24.3.1. Proba amaitzean sailkatutako ibilgailu guztiak Parke Itxian geratuko dira erreklamazioak aurkezteko epea amaitu arte eta bere irekitzea Kirol Komisarioek baimentzen duten arte.

24.3.2. Lasterketako txandak amaitzean, helmuga-lerroa eta Parke Itxia instalatuta dagoen tokiaren arteko ibilbidea "Parke Itxia"ren erregimenean dago. Pilotuaren ibilgailua soilik sartu ahal izango da.

24.3.3. "Parke Itxia"ren erregimenean zehar, debekatuta dago eskusioko zigorraren arriskuarekin, edonolako konponketa, hornidura ala ibilgailuaren edonolako manipulazio burutzea.

24.3.4. Parke Itxian debekatuta dago edozein pertsona sartzea, bertan misioren bat duten probari dagozkion ofizialak izan ezik.

24.3.5. Probatik ahalik eta hurbilen kokatuta egon beharko da, kontrolatzeko zailak diren lekualdatzeak ekidinez. Aurkako kasuan antolatzaileak 24.3.2. Artikulua betetzeko behar adina baliabide ezan beharko ditu eskuragarri.

24.3.6. Erreklamazioaren kasuan, Parke Itxia mantendu egingo da, aurreikusitako epearen ondoren, ibilgailuentzat zeinen zerrenda Parkean bertan argitaratuko baita.

25. Artikulua.- AMAIERAKO KONTROLA

25.1. Proba amaitzean, pilotu bakoitzak bere ibilgailua Parke Itxira eramango du.

25.2. Egiaztapen oso eta zehatz bat, ibilgailua desmuntatzea aurreikusten duelarik, burutu ahal izango da iritsi ondoren, Kirol Komisarioen Elkargoak hala eskatuko balu, ofizioz ala erreklamazio baten ondorioz jardunez, ala Lasterketako zuzendariak hala eskatuko balu.

25.3. Desmuntatze hori erreklamazio baten ondorioa balitz, 2008 Euskal Txapelketa, Kopa eta Sariei jarraiki erreklamazioa burutzen duenari fidantza osagarri bat eskatuko zaio, eta hau aldeztatik eman beharko du. Erreklamazioak oinarria izango balu, kausio hau erreklamazioa egiten duenari itzuli egingo zaio eta lehiakideari, zeinen aurka aurkeztu baitzen erreklamazioa, kargatuko zaio.

25.4. 25.2. Artikuluan aurreikusitako egiaztapena, burutuko balitz, sailkapen nagusiaren eta/edo Talde bakoitzaren lehenengo postutan sailkatutako taldeentzat burutuko da,

baita aldi baterako Kirol Komisarioek esleitutako beste edonolako ibilgailurentzako ere.

Era berean, marka bakarreko txapelketetako ibilgailuak egiaztatu ahal izango dira, F.G.A.-ak ala maila handiagoko beste organismoren batek onartutako dagozkien bere araudietan hala hitzartuta badago.

26. Artikulua.- SEGURTASUN NEURRIAK

26.1. Gailu bat hautazkoa balitz, hau araudiei jarraiki instalatu beharko da.

26.2. Jantzi ignifugoa: jantzi ignifugoaren erabilera, F.I.A. Homologazioarekin, nahitaezkoa izango da (L Eranskina, III. Kapituluak, pilotuentzako ekipamendua).

26.3. Kaskoak eta Hans: Kaskoaren erabilera entrenamenduetan eta lasterketan zehar nahitaezkoa da. Kaskoek onartutako Homologazio batekin kontatu beharko dute (L Eranskina, pilotuentzako ekipamendua).

26.4. Arnesak: Arnesak F.I.A.-k 8853 ala 8854 bere arauari jarraiki homologatuko ditu (ikus J Eranskineko 253.6 Art.).

Kontserbazio egoera ezin hobean dauden arnesak soilik onartuko dira (hausturarik gabekoak eta haririk atera gabekoak), zeinek bere ainguraketak behar bezala instalatuta eta korrosio aztarnarik gabe izango baitituzte.

26.5. Eserlekuak: Eserlekuak F.I.A.-k 8855 bere Arauari jarraiki homologatuko ditu. 5 urte gehiagoko iraungipen-datarekin.

Ainguraketak egoera ezin hobean egongo dira eta J Eranskineko 253.16 Artikuluaren aginduak beteko ditu.

26.6. Su-itxalgailuak eta itzaltze-sistemak

26.6.1. N, A, A2 eta R Taldetako ibilgailuek, gutxienez, eskuzko su-itxalgailu bat muntatuko dute J Eranskineko 253.7.4. Artikuluari jarraiki.

26.6.2. Su-itxalgailu guztiek etiketa bat izan beharko dute zeinek baimendutako zentro baten aldetik behar bezalako azterketa egiaztatuko baitu (J Eranskineko 253.7.3.7. eta 253.7.4.6. Art.).

26.6.3. Ibilgailuek Irteera-aurreko gunera itzaltze-sistema automatikoen segurtasun-eraztunak kenduta iritsi behar dute.

26.7. Segurtasun-kaiolak: Ondorengo eraikuntzak onartuko dira:

—1.993ko J Eranskineko 8. Artikuluaren araberako kaiolak (arku nagusiaren hodia 38x2,5 ala 40x2,0 mm) urte horretaraino homologatutako ibilgailu haietzako.

—1.998ko J Eranskineko 8. Artikuluaren araberako kaiolak (arku nagusiaren hodia 45x2,5 ala 50x2,0 mm) 1.994tik aurrera homologatutako ibilgailu haietzat

—ADN batek ala F.I.A.-k emandako Homologazio-Fitxa duten kaiolak.

Onarpen honek segurtasun-kaiolaren egoera ezin hobea inplikatzeko du soldaduren kalitatea, ainguraketen egoera, desmuntatu ahal diren lotune mota, hodian egoera eta elementuetako edozeinen korrosiorik ezari dagokionean.

26.8. Barne-gidatzeak: J Eranskinen 253.3 Art. aplikatuko da .

26.9. Kristalak: J Eranskinen 253.11 Art. aplikatuko da.

26.10 Babes-pantaila: Ibilgailu guztiek, motorra eta auto-barnearen artean, babes-pantaila eraginkor batekin kontatuko dute, sutearen kasuan sugarren zuzeneko proiektzioa ekiditeko.

26.11 II. Mailako ibilgailuetan, buru-eusteko bat instalatuko da, pilotuaren kaskoa, gidatzeko bere posizioan, buru-eusteko honetatik gehienez 5 cm-ko distantzia batera geratuko delarik.

27. Artikulua.- SAILKAPENAK

27.3. Sailkapenak lasterketan inbertitutako denborekin ezarriko dira.

27.4. Araudi Bereziak espresuki adierazten badu izan ezik, sailkapena ezartzeko edozein igoera ofizialetan inbertitutako denboretatik hoberena hartuko da, horietan guztietan parte hartu izana nahitaezkoa izanik. Partaideren batek azkeneko txanda amaitzea lortuko ez balu, nahitaez bere ibilgailua Parke Itxian aurkeztu beharko du.

27.5. Lasterketan berdinketa bat gertatuko balitz hauen puntuak eta sariak batuko lirateke, eta denbora bera dutenen artean atal berdinetan banatuko lirateke.

27.4. Proban zehar ondorengo sailkapenak argitaratuko dira:

- Entrenamendu txanda bakoitzari dagokion Sailkapen Ofiziala.
- Lasterketako txanda bakoitzari dagokion Sailkapen Ofiziala.
- Behin-behineko Sailkapen Ofiziala.
- Amaierako Sailkapen Ofiziala.

27.6. Argitaratu beharreko sailkapenetako bakoitzean, partaideak ondorengo kontzeptuen arabera sailkatuko dira:

- Scratch Nagusia.
- Mailen arabeko Nagusia.
- Junior mailako Sari Nagusia.

27.7. Erretiratuak eta/edo kanporatuak gutxienez hauetan azaldu beharko dute:

- Behin-behineko Amaierako Sailkapen Ofiziala.
- Amaierako Sailkapen Nagusia.

28. Artikulua- AKTAK ETA AMAIERAKO TXOSTENA

- 28.3.** Kirol Komisarioen bilera guztiak dagozkien aktetan islatuko dira, zein hauek guztiek sinatuko baitituzte.
- 28.4.** Kirol Komisarioen Lehendakaria probari dagokion amaiera-txostena eratu eta ondoren F.G.A.-ra bidaltzeko arduraduna da.
- 28.5.** Probari dagokion Idazkariak beharrezkoak diren datu guztiak Kirol Komisarioen Lehendakariari emango dizkio, era berean Amaiera-Sailkapen Ofizial bat egitearen arduraduna izango da zeinetan Nortasun Agiri Nazionalen zenbakiak eta/edo partaide guztien baimen-zenbakia adieraziko baita, erretiratuak eta/edo kanporatuak barne.

29. Artikulua.- SARI- ETA TXAPEL-BANAKETA

- 29.3.** Sari- eta txapel-banaketa lasterketa amaitu eta berehala burutu beharko da, Amaierako Sailkapen Ofiziala argitaratzen denean.
- 29.4.** Emate-ekitaldia parke itxitik ahalik eta hurbilen burutu beharko da.
- 29.5.** Sari eta txapel emate-ekitaldian nahitaezkoa da bereizgarriren bat jaso behar duten partaide guztientzat.
- 29.4.** Saritutako pilotuek pertsonalki jaso beharko dituzte sariak.
"Sari eta txapelen emate-ekitaldi"tik erretiratu gabeko sariak Batzorde Antolatzailearen jabegorako izango dira.
Sari eta txapel guztiak metagarriak dira.

30. Artikulua.- PENALIZAZIOEN LABURPENA

Artikulua eta puntua	Auzia	Baimendu GABEKO irteera	Kanporatzea	Penaliz. isuna
7.2.	Ez betetzea			90 €.
7.3.	Ez betetzea			120 €.
7.4.	Lehiaketako zenb. bat faltatzea			90 €.
7.5.	Lehiaketako 2 zenb. faltatzea		Kanporatzea	
8	Hautazko publizitatea faltatzea			180 €.
9.1.	Ez betetzea		Kanporatzea	
13.3.	15' ala atzerapen frakzio bakoitzeko			60 €.
13.3.	15' gaintzen dituen atzerapena	Baimendu gabeko irteera		
14.3	Ez betetzea			60 €.
14.4.	Egiaztapen teknikoan atzeratzea	Baimendu gabeko irteera		
14.4.	Eskatutako eta baimendutako atzerapena			
	1. aldiz Txapelketan			30 €.
	2. aldiz Txapelketan			90 €.
	Txapelketan 3. aldiz eskatutako atzerapena.	Baimendu gabeko irteera		
14.6.	Ados ez dagoen ibilgailua	Baimendu gabeko irteera		
14.8.	Ados ez dagoen ibilgailua		Kanporatzea	

2009 Mendirako agindu nagusiak

14.9.	Ez betetzea	Kanporatzea	
14.10.	Ez betetzea	Kanporatzea	
15.1.	Ez betetzea		90 €.
15.2.	Ez betetzea	Kanporatzea	
15.5.	Ez betetzea	Txandatik kanporatzea	
16.3.	Ez betetzea	Kanporatzea	
18.5.	Ez betetzea	Baimendu gabeko irteera	
20.1.	Ez betetzea	Kanporatzea	
21.3.	Ez betetzea	Kanporatzea	
24.3.2.	Ez betetzea	Kanporatzea	
24.3.3.	Ez betetzea	Kanporatzea	